

Bi eskultoreren arteko lankidetzak botanika arloko fenomeno baten antza izan lezake. Afizionatuen botanika, lorontzien, landare-ontzien eta berotegi txikien artean hazitakoa.

Landatu, ongarritu, ureztatu. Prozesua erraza da. Programatua al dugu guk landareok geure hazkuntza-prozesua? Edo, bestela esanda: zein da landare baten proiektua? Ba al dugu bizitza proiekturik, familia-proiekturik, lan proiekturik? Pentsatzen al dugu guk landareok? Sentitzen al dugu? Landareoi ez zaigu gehiegi entzuten iritziak ematen, baina nabaria da landareok hazi eta zimeldu egiten garela, bizi eta hil egiten garela, arnasa hartzen dugula, ugaltzen garela, eta are gehiago, pozoitzen eta hiltzen dugula. Eta, inoiz-edo, albiste izaten gara guregandik adar oso astunen bat askatu, eta adarrak ustekabeen paseatzaile arduragabeak zapaltzen dituenen. Esan beharrik ez dago, nahigabeko prozesuak dira, landareen borondatea eztabaidagarria den arren. Gaia maiz aztertu da. Gure zalantzazko sentiberatasuna bezala. Jada nolabaiteko adina dugunok gogoan daukagu aspaldiko telebista-programa bat, laurogeiko hamarkadako telebista hartakoa, inork ere ikusiko ez zuena, zeren, egia esan, izugarri aspergarria baitzen; gutaz bakarrik mintzo zen, eta ikusle hankadunak katez aldatzera behartzen zituen, – bi kate besterik ez zegoen, biak ere estatukoak, eta ia inork ez zuen urrutiko aginterik; orain, bai, denok agintea dugu, eta ugari dira kate publikoak eta pribatuak; dena den, dokumentalak, fikziozko telesailak eta albisteak gehiago ikusten dira internetez–. Programa haren izena “La aventura de las plantas” zen; ekoizpen frantseseko kapituluak ziren, gure hazkuntza *Time Lapse* moldean filmatzen zuten –edo auskalo zer prozeduraren bidez– eta dena jarraian ematen zuten, prozesua azeleratuta, eta gure landare-bizitzaren orduak eta orduak janda; zitzu bizian hazi eta moldatzen ginen pantailan, baina azelerazioa gorabehera, programa aspergarria zen egiazki, eta hori oso aproposa zen, zeren, ikusleek, lo daudenean, amets egiten dute eta landare gisa bizi dira: hots, landare gisa hazten dira. Aspaldiko programa hark azalpenak ematen zituen landareen jatorriaz, gure nortasunez, gure harreman eta sentimenduez, eta doinu sintetizatuetako musika elektronikoa zuen bidelagun; ederki moldatu gara beti elkarrekin sintetizadoreak eta gu landareok, eta fotosintesia ere egin dugu. “La aventura de las plantas” saioaren soinu-bandaren arduraduna sintetizadore interprete frantses bat zen –*syntétiste* bat–, hots, Joël Fjerman. Urte batzuk lehenago, AEBn, “La vida secreta de las plantas” film dokumentala egin zuten, eta haren soinu-banda nolabaiteko arrakastaz argitaratu zen, 1979an. Hura ere sintetizadorez egindako musika zen, eta gainera, lehenetariko grabazio digitaletako bat izan zen, Stevie Wonderrek konposatua; gaur egun, “*A Journey through the Secret Life of Plants*” izenburuko disko bikoitz bat da, eta *entzun egin dezakegu* txosten hau ordenagailuaren aurrean idazten dugun bitartean. *Entzuten duguna* iTunes-ko erremasterizazio bat da. izan ere, landareoi musika gustatzen zaigu; horretan mundu guztia dago ados. Musika melodikoa, elektronikoa, progresiboa eta klasikoa; klasikoa, batez ere. Jendeak guri kantatzea dugu gustuko, eta beharbada, zuhaixka urtetsuenak Vicente Mundina Balaguerrez oroituko dira, hau da, aita Mundinaz, oso jakintsua baitzen botanika arloan; etxeko landareak musika klasikoarekin girotzea gomendatzen zuen; hura hirurogeita hamarreko hamarkadako telebista zen, eta aita Mundina bereziki etxekoandreei mintzo zitzaien. Ama haiek bafle baten bidez Mozarten zerbait jartzen bazuten, landare igokari batek ederki besarkatuko zuen bozgorailua, bere osoan inguratuta.

Habitación proiekturako, Mikel Cabrerizok eta Paco Polánek gure prozesu botanikoa eskatu digute: *Barneko landareen gisa hazi, patio baten barnean, edo logela batean; airea, denbora eta espazioa kontsumitu; ez da beharrezkoa gehiegi mintzatzea, eta gauzak kontatzen besterik ez dakigu; eta beti ingurumena errespetatzea, gurea programazio inkontzienteko hazkuntza bat da eta ez dugu bestelako asmorik; eskulturak, objektuak, planoak, marrazkiak, ideiak trazatzea; airea eta lurra okupatzea. Landare batzuek besteen espazioak errespetatzen dituzte; beste batzuk, ordea, besteekin nahasten dira, elkarri lotzen zaizkio edota paretan gora eskalatzen dute, eta halaber, badira landare inbaditzaileak, gogoko ditugunak.*

.

Iruñean, 2018ko abuztuaren 2an

FICUS BENJAMINA---MATAPALO BATEN AZALPENA DA MIKEL CABRERIZOren eta PACO POLÁNen  
"BARRUKO LABNDAREAK" IZENEN "HABITACIÓN" PROIEKTUARI BURUZ